

# Ley y Reglamento del Registro Civil

## Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua

Primera edición,  
cerrada al 31 de marzo de 2004

Lehenengo argitaraldia,  
2004ko martxoaren 31n itxia

2004  
Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea  
Bilbao-Bilbo

Eskubide guztiak erreserbatu daude. Argitalpen hau, zati- zati edo osoz, ezin kopiatu daiteke ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektriko, dela mekaniko, dela fotokopiaz, dela grabazio magnetiko, dela bestelako informazio biltze eta berreskuratze sistemaz, baldin eta lehendaurrez egileen eta argitaratzailearen baimenik ez badu.

Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, almacenada o transmitida, en todo o en parte, en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, mecánico, de fotocopia, de grabación magnética u otro sistema de almacenamiento o recuperación de la información, sin permiso previo del editor y los autores.

Argitaraldia: lehenengoa, 2004ko ekaina

Edición: primera, junio de 2004

Ale-kopurua: 800

Tirada: 800 ejemplares

© Egileak/autores: Aiora Aristondo, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Fotokonposizioa/Fotocomposición: IPAR, S. Coop. - Bilbao  
Inprimaketa/Impresión:

ISBN: 84-7485-944-1

L.G./D.L.:

**Índice**

**Aurkibidea**

<b>Abreviaturas</b> .....	18
<b>Presentación</b> .....	20
<b>Prólogo</b> .....	29
<b>§1. Ley del Registro Civil, de 8 de junio de 1957</b> .....	35
<b>Exposición de motivos</b> .....	37
<b>Título I.</b> Disposiciones generales .....	46
<b>Título II.</b> De los órganos del Registro .....	50
<b>Título III.</b> Reglas generales de competencia .....	52
<b>Título IV.</b> De los asientos en general y modos de practicarlos .....	57
<b>Título V.</b> De las Secciones del Registro .....	62
<b>Sección 1.<sup>a</sup></b> De nacimientos y general .....	62
Capítulo I. De la inscripción de nacimientos .....	62
Capítulo II. De la filiación .....	64
Capítulo III. Del nombre y apellidos .....	67
Capítulo IV. De la nacionalidad y vecindad civil .....	71
<b>Sección 2.<sup>a</sup></b> De matrimonios .....	73
<b>Sección 3.<sup>a</sup></b> De las defunciones .....	77
<b>Sección 4.<sup>a</sup></b> De tutelas y representaciones legales .....	79
<b>Título VI.</b> De la rectificación y otros procedimientos .....	80
<b>Título VII.</b> Régimen económico .....	83
<b>Disposiciones adicionales</b> .....	84
Primera .....	84
Segunda .....	85

<b>Laburdurak</b> .....	19
<b>Aurkezpena</b> .....	21
<b>Atarikoa</b> .....	23
<b>§1. Erregistro Zibilaren Legea, 1957ko ekainaren 8koa</b> .....	35
<b>Zioen azalpena</b> .....	37
<b>I. titulua.</b> Xedapen orokorrak .....	46
<b>II. titulua.</b> Erregistroko organoak .....	50
<b>III. titulua.</b> Eskumenari buruzko erregela orokorrak .....	52
<b>IV. titulua.</b> Idazkunak orokorrean eta idazkunak egiteko moduak .....	57
<b>V. titulua.</b> Erregistroko atalak .....	62
<b>1. atala.</b> Jaiotzak eta orokorra .....	62
I. kapitulua.  Jaiotzen inskripzioa .....	62
II. kapitulua.  Seme-alabatasuna .....	64
III. kapitulua.  Izen-abizenak .....	67
IV. kapitulua.  Naziotasuna eta auzotasun zibila .....	71
<b>2. atala.</b> Ezkontzak .....	73
<b>3. atala.</b> Heriotzak .....	77
<b>4. atala.</b> Tutoretzak eta legezko ordezkariak .....	79
<b>VI. titulua.</b> Zuzenketa eta bestelako prozedurak .....	80
<b>VII. titulua.</b> Araubide ekonomikoa .....	83
<b>Xedapen gehigarriak</b> .....	84
Lehenengoa .....	84
Bigarrena .....	85

<b>Disposición transitoria</b> .....	85
<b>Disposiciones finales</b> .....	85
Primera .....	85
Segunda .....	86
Tercera .....	86
<b>§2. Reglamento del Registro Civil, aprobado por el Decreto de 14 de noviembre de 1958</b> .....	87
<b>Exposición de motivos</b> .....	89
<b>Título I.</b> Disposiciones generales .....	103
<b>Capítulo I.</b> Reglas comunes y complementarias .....	103
<b>Capítulo II.</b> De la publicidad del Registro .....	107
Sección 1. <sup>a</sup> De las certificaciones .....	107
Sección 2. <sup>a</sup> Del Libro de Familia .....	115
<b>Título II.</b> De los órganos del Registro .....	117
<b>Capítulo I.</b> De la Dirección General de los Registros y del Notariado .....	117
<b>Capítulo II.</b> De los Registros .....	119
Sección 1. <sup>a</sup> De los Registros Municipales .....	119
Sección 2. <sup>a</sup> De los Registros Consulares y Central .....	123
Sección 3. <sup>a</sup> De la segregación, extinción y división de los Registros .....	125
<b>Capítulo III.</b> De la inspección y sanciones .....	125
<b>Título III.</b> Reglas generales de competencia .....	130
Sección 1. <sup>a</sup> De la competencia de los Registros .....	130
Sección 2. <sup>a</sup> De los nacimientos, matrimonios y defunciones ocurridos en circunstancias especiales .....	133
Sección 3. <sup>a</sup> De los traslados de inscripciones .....	136
Sección 4. <sup>a</sup> De las incompatibilidades .....	137
<b>Título IV.</b> De los asientos en general y modo de practicarlos .....	137
<b>Capítulo I.</b> De los títulos de la inscripción .....	137
Sección 1. <sup>a</sup> De las clases de títulos y sus requisitos .....	137
Sección 2. <sup>a</sup> De los requisitos complementarios de los documentos .....	139
<b>Capítulo II.</b> De quienes promueven la inscripción y del auxilio para conseguirla .....	141
<b>Capítulo III.</b> De los libros del Registro y de su archivo .....	143
Sección 1. <sup>a</sup> Disposiciones generales .....	143
Sección 2. <sup>a</sup> De los libros en especial .....	146

<b>Xedapen iragankorra</b> .....	85
<b>Azken xedapenak</b> .....	85
Lehenengoa .....	85
Bigarrena .....	86
Hirugarrena .....	86
<b>§2. Erregistro Zibilaren Erregelamendua, 1958ko azaroaren 14ko Dekretuak onetsi duena</b> .....	87
<b>Zioen azalpena</b> .....	89
<b>I. titulua.</b> Xedapen orokorrak .....	103
<b>I. kapitulua.</b> Erregela erkideak eta osagarriak .....	103
<b>II. kapitulua.</b> Erregistroko publizitatea .....	107
1. atala. Ziurtagiriak .....	107
2. atala. Familia Liburua .....	115
<b>II. titulua.</b> Erregistroko organoak .....	117
<b>I. kapitulua.</b> Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia .....	117
<b>II. kapitulua.</b> Erregistroak .....	119
1. atala. Udal erregistroak .....	119
2. atala. Kontsulatuetao erregistroak eta Erregistro Zentrala .....	123
3. atala. Erregistroak bereizi, azkendu eta zatitzea .....	125
<b>III. kapitulua.</b> Ikuskapena eta zehapenak .....	125
<b>III. titulua.</b> Eskumenari buruzko erregela orokorrak .....	130
1. atala. Erregistroen eskumena .....	130
2. atala. Inguruabar berezietan gertatutako jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak ..	133
3. atala. Inskripzioak lekualdatzea .....	136
4. atala. Bateriaezintasunak .....	137
<b>IV. titulua.</b> Idazkunak orokorrean eta horiek egiteko modua .....	137
<b>I. kapitulua.</b> Inskripzioa egiteko tituluak .....	137
1. atala. Titulu-motak eta horien betekizunak .....	137
2. atala. Agirien betekizun osagarriak .....	139
<b>II. kapitulua.</b> Inskripzioa sustatzen duten subjektuak eta hori lortzeko la- guntza .....	141
<b>III. kapitulua.</b> Erregistroko liburuak eta horien artxiboa .....	143
1. atala. Xedapen orokorrak .....	143
2. atala. Liburuak bereziki .....	146

Sección 3. <sup>a</sup> De los libros auxiliares .....	148
Sección 4. <sup>a</sup> De los legajos y ficheros .....	152
Sección 5. <sup>a</sup> De los libros especiales del Registro Central .....	153
<b>Capítulo IV.</b> De la calificación .....	155
<b>Capítulo V.</b> De la extensión de los asientos .....	158
<b>Capítulo VI.</b> De las anotaciones .....	163
<b>Capítulo VII.</b> De las notas marginales .....	167
<b>Capítulo VIII.</b> De las cancelaciones .....	169
<b>Título V.</b> De las Secciones del Registro .....	170
<b>Capítulo I.</b> De la Sección de nacimientos y general .....	170
Sección 1. <sup>a</sup> De la inscripción de nacimientos .....	170
Sección 2. <sup>a</sup> De las declaraciones de abortos .....	173
Sección 3. <sup>a</sup> De las inscripciones marginales de la Sección Primera .....	174
Sección 4. <sup>a</sup> De la filiación .....	177
<i>Subsección 1.<sup>a</sup> De la filiación materna .....</i>	177
<i>Subsección 2.<sup>a</sup> De la filiación paterna matrimonial .....</i>	178
<i>Subsección 3.<sup>a</sup> De la inscripción de la filiación no matrimonial .....</i>	179
<i>Subsección 4.<sup>a</sup> De la filiación desconocida .....</i>	182
Sección 5. <sup>a</sup> Del nombre y apellidos .....	182
<i>Subsección 1.<sup>a</sup> Del nombre propio .....</i>	182
<i>Subsección 2.<sup>a</sup> De los apellidos en general .....</i>	183
<i>Subsección 3.<sup>a</sup> De los apellidos de los hijos adoptivos .....</i>	186
<i>Subsección 4. De los expedientes sobre nombres y apellidos de la competencia del Ministerio o del Gobierno .....</i>	187
<i>Subsección 5. De otros casos de cambio o conservación de nombres y apellidos .....</i>	189
<i>Subsección 6.<sup>a</sup> Reglas comunes de los expedientes de cambio .....</i>	192
<i>Subsección 7.<sup>a</sup> Nombre y apellidos de extranjeros .....</i>	194
Sección 6. <sup>a</sup> De la nacionalidad y vecindad civil .....	194
<i>Subsección 1.<sup>a</sup> Reglas especiales de los expedientes de nacionalidad ....</i>	194
<i>Subsección 2.<sup>a</sup> De las modificaciones de nacionalidad y vecindad .....</i>	198
<b>Capítulo II.</b> De la Sección de Matrimonios .....	202
Sección 1. <sup>a</sup> De la celebración del matrimonio ante Juez o funcionario que haga sus veces .....	202
Sección 2. <sup>a</sup> De la inscripción del matrimonio en el Registro Civil .....	208
Sección 3. <sup>a</sup> De las dispensas matrimoniales .....	210
Sección 4. <sup>a</sup> De las sentencias y resoluciones .....	211
Sección 5. <sup>a</sup> De las menciones o indicaciones sobre régimen de bienes .....	212
Sección 6. <sup>a</sup> De los matrimonios secretos .....	214
Sección 7. <sup>a</sup> De las anotaciones de matrimonio .....	215



3. atala. Liburu lagungarriak . . . . .	148
4. atala. Paper-sortak eta fitxategiak . . . . .	152
5. atala. Erregistro Zentraleko liburu bereziak . . . . .	153
<b>IV. kapitulua.</b> Kalifikazioa . . . . .	155
<b>V. kapitulua.</b> Idazkunak egitea . . . . .	158
<b>VI. kapitulua.</b> Idatzoharrak . . . . .	163
<b>VII. kapitulua.</b> Orri-bazterreko oharra . . . . .	167
<b>VIII. kapitulua.</b> Ezerezteak . . . . .	169
<b>V. titulua.</b> Erregistroko atalak . . . . .	170
<b>I. kapitulua.</b> Jaiotzen atala eta atal orokorra . . . . .	170
1. atala. Jaiotzen inskripzioa . . . . .	170
2. atala. Abortuei buruzko adierazpenak . . . . .	173
3. atala. Lehenengo atalaren orri-bazterreko inskripzioak . . . . .	174
4. atala. Seme-alabatasuna . . . . .	177
1. azpiatala. Amarengandiko seme-alabatasuna . . . . .	177
2. azpiatala. Aitarengandiko ezkontzazko seme-alabatasuna . . . . .	178
3. azpiatala. Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunari buruzko inskripzioa . . . . .	179
4. azpiatala. Seme-alabatasun ezezaguna . . . . .	182
5. atala. Izen-abizenak . . . . .	182
1. azpiatala. Izen berezia . . . . .	182
2. azpiatala. Abizenak orokorrean . . . . .	183
3. azpiatala. Seme-alaba adoptatuen abizenak . . . . .	186
4. azpiatala. Izen-abizenen espedienteak, ministerioaren edo Gobernuaren eskumenekoak direnak . . . . .	187
5. azpiatala. Izen-abizenak aldatzeko nahiz horiei eusteko bestelako kasuak . . . . .	189
6. azpiatala. Aldaketa-espediente guztietarako erregelak . . . . .	192
7. azpiatala. Atzerritarren izen-abizenak . . . . .	194
6. atala. Naziotasuna eta auzotasun zibila . . . . .	194
1. azpiatala. Naziotasun-espedienteei buruzko erregela bereziak . . . . .	194
2. azpiatala. Naziotasunaren eta auzotasunaren aldarazpenak . . . . .	198
<b>II. kapitulua.</b> Ezkontzen Atala . . . . .	202
1. atala. Epailearen aurrean edo epailearen ordezkariaren aurrean ezkontzea . . . . .	202
2. atala. Ezkontza Erregistro Zibilean inskribatzea . . . . .	208
3. atala. Ezkontzaren lekapenak . . . . .	210
4. atala. Epaiak eta ebazpenak . . . . .	211
5. atala. Ondasun-eraentzari buruzko aipamenak . . . . .	212
6. atala. Isilpeko ezkontzak . . . . .	214
7. atala. Ezkontzari buruzko idatzoharrak . . . . .	215

<b>Capítulo III.</b>	De la Sección de Defunciones .....	216
<b>Capítulo IV.</b>	De la Sección de tutelas y representaciones legales .....	221
	Sección 1. <sup>a</sup> De las inscripciones .....	221
	Sección 2. <sup>a</sup> De las anotaciones .....	224
<b>Título VI.</b>	De la rectificación y otros procedimientos .....	226
<b>Capítulo I.</b>	De la rectificación .....	226
	Sección 1. <sup>a</sup> Reglas especiales .....	226
	Sección 2. <sup>a</sup> De los expedientes para completar o suprimir circunstancias y asientos .....	227
	Sección 3. <sup>a</sup> De los defectos y faltas formales y de su corrección .....	228
	Sección 4. <sup>a</sup> De la inscripción de resoluciones .....	232
<b>Capítulo II.</b>	Del expediente para la inscripción de nacimiento fuera de plazo ..	234
<b>Capítulo III.</b>	De la reconstitución de inscripciones destruidas .....	236
	Sección 1. <sup>a</sup> De las medidas para caso de destrucción o deterioro .....	236
	Sección 2. <sup>a</sup> Del expediente de reconstitución .....	239
	Sección 3. <sup>a</sup> De las reinscripciones .....	242
<b>Capítulo IV.</b>	De los expedientes para declaraciones con valor de simple presunción .....	246
<b>Capítulo V.</b>	De las reglas de los expedientes en general .....	248
	Sección 1. <sup>a</sup> De sus presupuestos y tramitación .....	248
	Sección 2. <sup>a</sup> De los recursos .....	255
<b>Capítulo VI.</b>	De la fe de vida o estado .....	259
<b>Capítulo VII.</b>	De los expedientes de la competencia del Ministerio o autoridad superior y de nombres y apellidos .....	261
<b>Título VII.</b>	Régimen económico .....	263
<b>Título VIII.</b>	De los Médicos del Registro .....	267
<b>Disposiciones transitorias</b>	.....	271
	Primera .....	271
	Segunda .....	271
	Tercera .....	272
	Cuarta .....	272
	Quinta .....	272
	Sexta .....	273
	Séptima .....	274
	Octava .....	274
	Novena .....	274
	Décima .....	275
	Undécima .....	275
	Duodécima .....	276
	Decimotercera .....	276

<b>III. kapitulua.</b>	Heriotzen Atala .....	216
<b>IV. kapitulua.</b>	Tutoretzen eta legezko ordezkartzen atala .....	221
	1. atala. Inskripzioak .....	221
	2. atala. Idatzoharrak .....	224
<b>VI. titulua.</b>	Zuzenketa eta bestelako prozedurak .....	226
<b>I. kapitulua.</b>	Zuzenketa .....	226
	1. atala. Erregela bereziak .....	226
	2. atala. Inguruabarrak eta idazkunak osatu edo ezabatzeko espedienteak ....	227
	3. atala. Akats eta hutsegite formalak, eta horien zuzenketa .....	228
	4. atala. Ebazpenen inskripzioa .....	232
<b>II. kapitulua.</b>	Epez kanpoko jaiotza inskribatzeko espedienteak .....	234
<b>III. kapitulua.</b>	Suntsitutako inskripzioak berreratzea .....	236
	1. atala. Suntsipen- edo narriadura-kasuetarako neurriak .....	236
	2. atala. Berreratze-espedienteak .....	239
	3. atala. Berrinskripzioak .....	242
<b>IV. kapitulua.</b>	Presuntzio hutsaren balioa duten adierazpenen espedienteak ..	246
<b>V. kapitulua.</b>	Espedienteei buruzko erregelak orokorrean .....	248
	1. atala. Espedienteen baldintzak eta izapidetza .....	248
	2. atala. Errekurtsoak .....	255
<b>VI. kapitulua.</b>	Bizi- edo egoera-agiria .....	259
<b>VII. kapitulua.</b>	Ministerioaren edo goi agintaritzaren eskumeneko espedien- teak, eta izen-abizenei buruzkoak .....	261
<b>VII. titulua.</b>	Araubide ekonomikoa .....	263
<b>VIII. titulua.</b>	Erregistroko medikuak .....	267
<b>Xedapen iragankorrak</b>	.....	271
	Lehenengoa .....	271
	Bigarrena .....	271
	Hirugarrena .....	272
	Laugarrena .....	272
	Bosgarrena .....	272
	Seigarrena .....	273
	Zazpigarrena .....	274
	Zortzigarrena .....	274
	Bederatzigarrena .....	274
	Hamargarrena .....	275
	Hamaikagarrena .....	275
	Hamabigarrena .....	276
	Hamahirugarrena .....	276

<b>Disposiciones finales</b> .....	276
Primera .....	276
Segunda .....	276
Tercera .....	277
<b>Disposición especial</b> .....	277
<b>Índices analíticos</b> .....	279
<b>Castellano-euskera</b> .....	281
<b>Euskera-castellano</b> .....	387

<b>Azken xedapenak</b> .....	276
Lehenengoa .....	276
Bigarrena .....	276
Hirugarrena .....	277
<b>Xedapen berezia</b> .....	277
<b>Aurkibide analitikoak</b> .....	279
<b>Gaztelania-euskara</b> .....	281
<b>Euskara-gaztelania</b> .....	387

# Abreviaturas

<b>BOE</b>	Boletín Oficial del Estado
<b>DA</b>	Disposición Adicional
<b>DF</b>	Disposición Final
<b>DGRN</b>	Dirección General de los Registros y Notariado
<b>DT</b>	Disposición Transitoria
<b>STS</b>	Sentencia del Tribunal Supremo

# Laburdurak

<b>AGE</b>	Auzitegi Gorenaren Epaia
<b>a. x.</b>	azken xedapena
<b>EAO</b>	Estatuko Aldizkari Ofiziala
<b>ENZN</b>	Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia
<b>x. g.</b>	xedapen gehigarria
<b>x. i.</b>	xedapen iragankorra

# Presentación

Constituye una gran satisfacción constatar ya la realidad de esta publicación: La ley y el Reglamento del Registro Civil en formato bilingüe, realizado a través de la colaboración de este Departamento con el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto. Mi reconocimiento personal por ello a todos los que lo han impulsado y hecho posible.

Si en el ámbito de normalización lingüística en la justicia, la necesidad de disponer de textos legales bilingües es cada día más acuciante, no cabe duda que el área del Registro Civil, era especialmente sensible y precisaba de este instrumento; ya que es el paradigma de las relaciones directas sin intermediarios de los ciudadanos con los Registros Civiles y los Juzgados de Paz, para aquellas gestiones que tienen que ver con los actos fundamentales de su vida civil.

Este instrumento, unido al impulso de la euskaldunización en esos órganos encargados de una justicia próxima a la sociedad, que se está llevando a efecto en los últimos años desde el Departamento de Justicia, mediante la formación en euskera intensiva de los funcionarios destinados en los mismos, la implantación de una aplicación de gestión procesal informática totalmente bilingüe, así como el desarrollo de planes de fomento de uso del euskera, implica un panorama sustancialmente más favorable que el existente hace pocos años. No obstante, urge que el Ministerio de Justicia adecue los libros de Registro a la realidad lingüística de este País.

En definitiva, a través de esta legislación bilingüe nuevamente, como ya se hizo con la Ley de Menores y se hará en breve con la Ley de Enjuiciamiento Civil, a las que seguirán otras ya en proceso de planificación, ponemos a disposición de profesionales de la justicia y de los ciudadanos y ciudadanas, medios idóneos para favorecer la normalización del uso del euskera en la justicia, y cumplimos la obligación que nos compete como poderes públicos comprometidos en esta tarea.

*Joseba Azkarraga Rodero*  
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social



# Aurkezpena

Atsegin handikoa da argitalpen hau dagoeneko eskuetan izatea, alegia, Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua, bertsio elebidunean. Oraingo testua Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak sail honekin duen lankidetzaren ondorioa da. Nire esker ona, hortaz, berau bultzatu eta errealitate bihurtu duten guztiei.

Justiziaren arloan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko, gero eta premiazkoagoa da lege-testu elebidunak izatea. Erregistro Zibilaren eremuan, zalantzarik gabe, biziki atzematen da halako tresnen beharrezana. Izan ere, herritarrek zuzeneko harremanak dituzte, inolako bitartekorik gabe, erregistro zibilekin eta bake epaitegiekin, eta hala da, herritarron bizitza zibilean oinarritzko diren egintza eta gestio askotarako.

Justizia hori, beraz, gizartetik hurbil-hurbil dago, eta arlo horretako organoak euskalduntzea ezinbesteko gertatzen da. Horretarako, azken urteetan, Justizia Sailak zenbait ekimen gauzatu ditu, besteak beste, organo horietako funtzionarioak euskaraz trebatzea, informatikaren prozesu-kudeaketarako aplikazio guztiz elebiduna ezartzea eta euskararen erabilera sustatzeko planak garatzea. Horiek guztiek, orain aurkezten den honekin batera, asko hobetzen dute orain urte batzuk justizian zegoen egoera. Edozein modutan ere, nahitaezkoa da Justizia Ministerioak erregistro-liburuak egokitzea, herri honen hizkuntza-errealitatea aintzakotzat hartuta.

Adingabeen Legeak bidea ireki zuen, eta, epe laburrera, Prozedura Zibilaren Legeak beste urrats bat emango du bide horretan; badaude, gainera, beste lege batzuk ere planifikatuta. Azken finean, legeria elebidun hau justiziako profesionalen, eta, oro har, herritarren esku geratzen da, horiek guztiek baliabide aproposak izan ditzaten, euskararen erabilera justiziaren eremuan normalizatzeko. Horrela, herri-botere gisa dagokigun betebeharra betetzen dugu, eginkizun horretan gure hitza eman baitugu.

*Joseba Azkarraga Rodero*  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua



# Atarikoa

Argitalpen honetara bildu dira bitariko testuak, Erregistro Zibilaren nondik norakoak arautu eta barruratzen dituztenak. Bateko, 1957. urteko ekainaren 8ko Legea, eta, besteko, 1958. urteko azaroaren 14ko Dekretua, Erregistro Zibilaren Legea aplikatzeko Erregelamendua onetsi duena. Horiekin batera ere, batak eta besteak harrezkero izan dituzten lege-aldarazpenak, 2004. urteko martxoaren 31 arte burutuak.

Erregistro Zibila da, ezbairik gabe, egun Justizia Administrazioak duen erakusleihu bizia, egunerokoak baititu herritarren eskabideak eta herritarrekiko harremanak. Jaiotza eta heriotza dira, besteak beste, edozein gizabanakoren errealitate biologikoak, eta, aldi berean ere, ondorio juridiko garrantzitsuen sortzaileak. Hartara, ezinbestekoa da horiek egoki agertzea erregistro jakin eta zehatz batean.

Eite bereko diren osterantzeko egoerak ere hortxe bertan dira islatu beharrekoak, hala ezgaitasuna, nola horren babes juridikoak, alegia, tutoretza eta kuradoretza. Absentzia, ezkontza eta seme-alabatasuna ere aintzat hartu beharrekoak dira horrelakotan. Esan gabe doa, orobat, auzotasun zibilaren mundua Espainiako zuzenbidean. Horiek guztiak dira Erregistro Zibilean egokitze eta kokatze ziburra duten egoerak.

Erregistroaren esparrua da, halaber, zuzenbidearen aldetik zorroztasun eta trebezia juridikorik nabariena behar duten horietarikoa. Erregistroaren ohiko jardunak idazkUNETAN eta liburuetan du oinarri, aspaldi-aspalditik. Izan ere, Frantziako Iraultza izan zen lehena, ordu arte Elizaren pekoa zena arlo zibilera ekartzeko, 1792. urteko irailaren 20ko dekretu baten bidez. Geroko kontuak dira, Frantzian nahiz Europako beste herrialde anitzetan, Erregistro Zibilarenak.

Espainian ere, 1870. urteko Legea aurrendari da zeregin horretan. Haren indargabetzaile, eta, oro har, Erregistro Zibil eguneratu baten antolatzaile, argitalpen honen bidez euskal legelariaren eskura datozen testuok.

Sarritan esan ohi da Erregistro Zibila gizabanakoen egoera zibilaren erregistroa dela. Hain zuzen ere, egoera zibil horrek dakartza, lehen esan legez, halako ondo-

rio jakin eta zehatzak subjektu horrentzat, horiek bere-berezkoak izan (izena, abizenak) zein ondare-izaerakoak izan (oinordetzak, familia-zuzenbidekoak).

## **Onomastika, Erregistro Zibila eta euskara**

Erregistro Zibilaren Lege eta Erregelamenduaren egungo testuak, hainbat ekimen, eginahal eta lanen fruituak dira, hain juxtu ere, gaztelaniaz besteko hizkuntzen onomastika, euskararena barne, bertan isla dadin.

Izan ere, Erregistro Zibilaren legeriak begi-bistan jartzen du, euskararen alorrean, euskaldunek aspalditik izan duten kezka nabaria, hots, euskarazko izenak eta abizenak Erregistro Zibilean inskribatzekoa. Ezaguna denez, izen-abizenak dira osagairik esanguratsuenak, gizabanakoaren izate eta nortasuna moldatzeko tenorean. Horiek identifikatzen dute pertsona, eta horiek dira, nolabait esatearren, nortasun-agiririk ziurrenak eta zabalenak.

Horiek ere, zeresanik ez, gizartean dira ikusgarri eta entzungarri, nor izate horren eramailerik adierazkorrenak baitira. Horra, berriz, halakoak euskarazko eitean inskribatzeko garrantzia eta pisua, eurok baitira, zalantza ñimiñorik gabe, euskarak berak gizartearen aurrean eta barruan izan dezakeen bizitasunaren seinale eta erakusle, euskal mintzodun izan zein ez, halakoak dituztenak.

Horiek horrela, nabarmen da euskarak ez duela izan, Espainiako Bigarren Errepublikaz geroztik, berezkoa duen euskal onomastika Erregistro Zibilean barnerratzeko modu erosorik. Aitzitik, Espainiako gerra zibilaren osteko garaian, euskal onomastikaren aurkako debekuak lege bihurtu ziren, orduko belaunaldi euskaldunen kalterako.

Arian-arian, alabaina, erakunde batzuen lana gailendu egin da, euskal onomastika berreskuratzeko bidean, horien artean, Euskaltzaindia bera, eta, zer esanik ez, Jose Maria Satrustegi euskaltzain nafar adoretsua. Urteak joan, urteak etorri, hortik bideratu zen, neke eta amore-emate askoren gaintik, berebiziko lege-aitortza euskal onomastikarentzat. Ahalegin horien segidakoa da egun Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak bururatzen diharduen lana eta eskuartekoa.

Bitarikoa da batzorde horren eginkizuna, bi-bitara ibili behar izan baitu Euskaltzaindiak azken urteetan: batetik, onomastika arautu eta arau-emailea finkatzea du helburu, ondorioz normalizazioa lortu ahal izateko, eta inoizko batean ohiko izaten ziren desbideraketa eta gehiegikeriak uxatzeko; bestetik, Erregistro Zibilaren ataza da euskal onomastika horren harrera egokia egitea, legeak eskaintzen dituen modu desberdinetan bada ere (aurretiaz jarritako gaztelaniazko izenaren baliokide euskaldunaren bitartez edota euskal izen eta abizenen grafia eta fonetika euskarazkoetara egokituz, Euskaltzaindiak zehaztu duen moduan).

Bilakaera horren mugarri garrantzitsuak izan dira, orain arte, Euskaltzaindiak herritarren eskabidez kasuan-kasuan eman dituen agiriak, Erregistro Zibilaren bulegoetan euskal onomastika egiaztatzeko. Oraintsuagokoak dira, modu sailkatu baten

bidez, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak landu eta argitaratu dituen *Nomenclátor de Apellidos Vascos-Euskal Deituren Izendegia* (1998) eta *Diccionario de nombres de pila-Euskal Izendegia* (2001). Bi-biok arrakastatsu gertatu dira, eta berehala eskuratu dute Erregistro Zibileko agintarien onespina, nahitaezko tresna izan daitezen euren eskuarteko gorabeheretan. Horien etengabeko eguneratze-lanean dihardu, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak.

Legeria zibilari dagokionez, erabakigarri suertatu da Erregistro Zibilaren Lege eta Erregelamenduaren azken eraldaketen artean, azaroaren 5eko 40/1999 Legea. Horrek ekarri du euskal onomastika euskarazko grafia arautuarekin inskribatu ahal izatea Erregistro Zibilean, aurretiaz beharrezko ziren izapide eta osagaietatik hainbat horren bidez ezabatu direla .

## Erregistro Zibila eta euskara

Aurrekoaren haritik, sarri-sarri azaleratu den kontua osterantzekoa da, alegia, ea Erregistro Zibilean euskarazko onomastika inskribatzea ez ezik, erregistroa bera ere euskaraz eramateko modukoa ez ote den.

Hemen argitaratzen diren lege-testuekin, bi motatako osagaiak dituzte Erregistro Zibilaren jarduleek. Jada eginak dira Erregistro Zibilari buruzko inprimakiak, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuordetzako Agiri Judizialen Itzulpenerako Batzordearen iradokizunekin. Orain bestelakoak datoz, hau da, horien oinarri diren lege-erregelamenduen gaztelaniazko eta euskarazko testuak. Beraz, bi aurrerapauso eragingarri eman dira xede horren betetzean.

Arazoa, hala ere, korapilatsuagoa da. Izatez, Erregistro Zibila «erregistro juridikoa» da, erregistro administratiboetatik at estatuko ahalmenen artean barruratzen dena.

Erregistro Zibilaren Erregelamenduak berak arautzen du, 86. artikuluan, bertara aurkezten diren agirien hizkuntza-araubidea: *Gaztelaniaz edo autonomia-erki-degoetako gainerako hizkuntza ofizialetan idatzi ez diren agiriekin edo antzinako letraz edo nekez ulertzen denaz idatzitakoekin batera aurkeztuko da behar beste-ko itzulpena edo kopia, notario, kontsul, itzultzaile edo beste organo nahiz funtzionario eskudunek egindakoa. Itzulpena ez da beharrezkoa izango, arduradunak horren edukiaren berri izanez gero. Gaztelaniaz eginak ez diren idazkunak ere akastun jotzen ditu erregelamendu bereko 298.6 artikulua: *Idazkunak akats formalak dira: ... 6. ... gaztelaniaz besteko hizkuntza bat erabiltzea...**

Bide bertsutik, 1993. urtean, Konstituzio Auzitegiaren autoak (1993-10-25) eta Auzitegi Gorenaren epaiak (1993-01-26) behin eta berriro azpimarratu dute Erregistro Zibilaren hizkuntza gaztelania dela, nahiz eta liburuetatik atera daitezkeen ziurtagiriak gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizial batean egiteko aukera onetsi eta aitortu. Antzekoak izan dira ENZNren ebazpenak (1996-01-10 eta 1998-09-05).

Horrek guztiak ekarri ditu, bestalde, hiru agindu ofizial (1988-05-26, 1989-07-20 eta 1993-01-21) eta zirkularra (1984-03-01), tokian tokiko Erregistro Zibilaren agirien eredu elebidunak (euskarazkoak barne) arautu eta moldatzekoak.

Garai berrien iragarle izan daiteke, kasu honetan, Kataluniako urtarrilaren 7ko 1/1998 Legea, Hizkuntza-Politikari buruzkoa, eta, zehatzago, lege horren 17. artikulua, erregistro publikoen ingurukoa: *1. Son válidos los asientos registrales realizados en cualquiera de las lenguas oficiales*. Nolanahi ere, ENZNren ebazpen batek (1999-10-28) berriro ere gogoratu du, artikulua hori gorabehera, aurretiaz aipatu bi horiek, hots, hizkuntzen ofizialtasunak dakarrela ziurtagiriak elebidun izatea eta Erregistro Zibilarekiko harremanak katalanez egitea; ez, ordea, Erregistro Zibilaren barne-antolakuntza gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizial batez gauzatu ahal izatea, Erregistro Zibilaren Lege eta Erregelamenduaren gaineratik.

Esanak esan, garatu gabeko alorra da, oraingoz behintzat, euskararen bidezko Erregistro Zibilarena.

## **Euskarazko testuaren ezaugarriak**

Hona hemen ahaleginaren lerro nagusia: euskara ofiziala non izan eta lurralde horietako herritarrei halako tresna sendoa eskaintzea, alor horretako hizkuntzaren normalizazioan bultzagile izateko gogoia agerian uzten delarik.

Testua, gure aurreko argitalpenetan ohikoa denez, elebiduna da, gaztelania-euskara, bi zutabetan moldatua. Osagarri ditu erabiltzaileak aurkibide analitikoak, gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania, testuan zehar kontzeptuen joan-etorriak ez ezik, hizkuntzen arteko abiaburuak ere atzemateko tenorean. Hortaz, berehala aurki daiteke, gaztelanitik zein euskaratik abiatuta, beste hizkuntzaren ordaina eta artikulua barruko kokaera.

Orain arte azaldutakoaren arabera, euskarazko testuak gutxieneko baldintza batzuk bete behar zituen, testu itzuliaren edukia artez eta zuzen barneratzeko. Hizkuntzarena zein zuzenbidearena batera antolatu dira, sail honetako argitalpenek ohi duten bezalaxe:

- a) Testura bildu dira Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioak. Hortaz, Hiztegi Batuko bigarren itzuliak aurrera egin ahala, beste lege-testu batzuetan erabilitako hitzak egokitu dira (*auzotartasun/auzotasun, naziokotasun/naziotasun*).
- b) Terminologiaren aldetik, azpimarratzeko modukoak dira semantikari eta esanahiari eman zaien tratamendua. Bi adibide izan daitezke horren adierazlerik neur-tuenak. Hasteko, Erregistro Zibilaren idazkun- eta liburu-mo-tei eskaini zaien arreta berezia, hurrenez hurren sailkatuz eta lotuz, *menciones/aipamenak, cancelaciones/ezerezteak, anotaciones/idatzoharrak, inscripciones/inskripzioak, notas marginales/orri-bazterreko oharrak* eta

*Libro de Familia/Familia Liburua, Libro de Matrimonios Secretos/Isilpeko Ezkontzen Liburua, Libro de Personal y Oficina/Langileria eta Bulego Liburua, Libro Diario/Liburu Egunkaria.* Hasian hasi, ezin alde batera utzi Erregistroaren munduak bere-bereak dituen hitzak eta erabilerak, ohituta ez dagoenari arrotz samarrak zaizkionak. Gaztelaniazko *traslado* izan daiteke horien artean nabariena testu honetan, horren hiru adiera euskaraz ematekotan (dela liburuak geografikoki tokiz aldatzea —*lekualdaketa*—, dela liburuaren edukia beste leku batera alderatzea —*kopia*—, dela erregistro-egintza baten berri ematea —*jakinarazpena*—).

- c) Oinarri-oinarrian izan dira Deustuko Unibertsitateak jada argitaraturik dituen lege-testu zein eskuliburuak, zuzenbide zibileko sistemaren euskaratzeari erro-erroko batasuna emateko.
- d) Alderatu eta bateratu egin dira, ahal delarik, lege-testu hauen terminoak eta Erregistro Zibilaren formularioetan Agiri Judizialen Itzulpenerako Batzordeak ezarritakoak. Bion ahaleginak egokitu dira, eta berebiziko gogoeta egin da, modu bertsuan jokatzeko. Hartara, lege-testua moldatu da, formularioetan ageriko diren *orri-bazterreko inskripzio/orri-bazterreko ohar/eginbideak gauzatu* eta bestelako terminoak bertaratzeko. Beste kasu batzuetan, ordea, osterantzeko bidea hartu da, eta lege-testuaren esanahiari eutsi zaio, berori egokiago delakoan, adibidez, *prozesuko arauak/naziotasuna/Fiskaltza*.

## Argitalpenaren arduradunak

Erregistro Zibilaren Lege eta Erregelamenduaren argitalpen elebidun hau da Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak ondu duten hitzarmenaren fruitua. Testu honen lehen bertsioa institutu horretan egin da, unibertsitate bereko Zuzenbide Fakultatearen Euskara Juridikoaren Mintegiarekin batera. Horren egilea Aiora Aristondo Azkonobieta andre ikertzailea izan da, Zuzenbide Fakultateko irakasle den Esther Urrutia Idoiaga andrearen zuzendaritzapean. Bion kolaboratzaileak izan dira, testuaren orrazketa eta azken irakurketetan, fakultate bereko irakasle diren Andres Urrutia eta Gotzon Lobera jaunak.

Gogo bizia erakutsi nahi dugu argitalpen honen egileok, honako hau izan dadin, Erregistro Zibilaren arduradun zein herritarrentzat, halako lanabes prestu eta zehatza. Horrela lortuko da, gure ustez, hara bertaratzten diren euskaldunen hizkuntza aintzakotzat hartzea, bertako zeregin juridiko esanguratsuetan.

*Egileak*





# Prólogo

La legislación del Registro Civil que se ofrece en este volumen comprende el texto actualizado de la Ley de 8 de junio de 1957 y el Decreto de 14 de noviembre de 1958 por el que se aprueba el Reglamento para la aplicación de la Ley del Registro Civil con las modificaciones posteriores de ambos textos, actualizadas hasta el día 31 de marzo de 2004.

El Registro Civil es hoy en día uno de los elementos fundamentales de visualización de la justicia en el quehacer cotidiano de la ciudadanía. El nacimiento o el fallecimiento son, además de realidades biológicas en la vida de cualquier persona, circunstancias creadoras de una serie de efectos jurídicos para los que es imprescindible una constancia registral exacta y puntual.

Del mismo modo, situaciones como el matrimonio, la filiación, la incapacidad y sus remedios jurídicos, la tutela y la curatela, así como la ausencia o en el caso del derecho español, la vecindad civil, tienen su cauce y ubicación adecuados dentro del Registro Civil.

La materia registral es quizás, dentro del mundo jurídico, una de las que exige mayor especialización y, si se quiere, mayor precisión y finura jurídica. El funcionamiento de un Registro Civil laico es ya una constante desde que el Decreto de 20 de noviembre de 1792, de la Revolución Francesa, trasladó a la competencia estatal los registros de la Iglesia hasta entonces existentes. En esa misma línea se sitúan los Registros Civiles, tanto de Francia, como de otros muchos países europeos.

También en España la ley de 1870 fue un primer paso en ese sentido. A su derogación y sustitución por un sistema de Registro Civil fiable y moderno han venido los textos que se ofrecen en este volumen.

Se ha definido muchas veces el Registro Civil como el Registro del estado civil de las personas. Es precisamente ese estado civil el portador de un haz de consecuencias tanto personales (nombre, apellidos) como patrimoniales (sucesiones, derecho de familia). Entre todas ellas destaca, por su relación con la lengua, el tema de la onomástica y su reflejo en el Registro Civil.

## **Onomástica, Registro Civil y lengua vasca**

El texto actual de la Ley y el Reglamento del Registro Civil recoge la culminación de un largo proceso cuyo objetivo ha sido, en el caso del euskera, que la onomástica vasca reciba un tratamiento adecuado en el Registro Civil.

La onomástica es uno de los puntos de mayor relieve en la labor de normalización social de la lengua vasca. Es evidente la importancia del nombre y los apellidos a la hora de configurar la personalidad humana y su presencia en la sociedad. Es también notorio el hecho de que esa onomástica en euskera es de amplia extensión social, incluso entre personas que desconocen dicha lengua.

Sabido es que la lengua vasca no gozó, tras la Segunda República española y durante el régimen político anterior, de un estatus favorable para su admisión en el Registro Civil. Muy al contrario, la prohibición de su uso está bien documentada en diversos trabajos de investigación. Fue precisamente la labor de algunas instituciones como la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y de personalidades como el académico navarro Don José María Satrústegui, lo que permitió, en una tarea constante e inasequible al desaliento, ir forjando un ámbito legal propio en materia de onomástica vasca.

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, promueve junto a la fijación de una onomástica vasca normalizada que huye de algunas de las exageraciones del pasado, su recepción por parte del Registro Civil, bien sea por medio de la equivalencia en el nombre entre el castellano y la lengua vasca, bien por la adaptación gráfica y fonética de los nombres y apellidos vascos a la grafía normativizada de la lengua vasca fijada por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Hitos importantes en esta evolución han sido de una parte, el *Nomenclátor de Apellidos Vascos-Euskal deituren izendegia* (1998) y de otra, el *Diccionario de nombres de pila- Euskal Izendegia* (2001), que han recogido y sistematizado los últimos avances en el campo de la onomástica en euskera. Ambos han tenido una excelente acogida en el Registro Civil, como instrumentos necesarios de su quehacer diario.

En lo que se refiere a la legislación civil, ha resultado decisiva la reforma de la Ley y Reglamento del Registro Civil operada por la ley 40/1999 de 5 de noviembre, cuyo texto ya aparece incluido en la presente edición y que ha permitido un acceso pleno de la onomástica vasca al Registro Civil, suprimiendo muchas de las barreras antes existentes y simplificando el procedimiento para realizar dichas operaciones.

## **El Registro Civil y el euskera**

Al hilo de lo anterior, existe un tema que resulta de gran importancia en el proceso de normalización lingüística y que se refiere no tanto a la constancia en el

Registro Civil de la onomástica vasca, cuanto a la llevanza de dicho Registro Civil en las lenguas oficiales distintas del castellano.

El Registro Civil es uno de los llamados «registros jurídicos», configurados como de competencia constitucional del estado. En lo referente a la lengua, el artículo 86 de su Reglamento establece un principio general (*Con los documentos no redactados en castellano ni en ninguna de las demás lenguas oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, o escritos en letra antigua o poco inteligible, se acompañará traducción o copia suficiente hecha por Notario, Cónsul, Traductor u otro órgano o funcionario competentes. No será necesaria la traducción si al Encargado le consta su contenido*), que luego cierra el artículo 298 del mismo texto reglamentario (*Son defectos formales de los asientos: ... 6. ... el empleo de idioma distinto del castellano...*).

La jurisprudencia del Tribunal Constitucional ha ido decantando de forma progresiva el estatus de las lenguas cooficiales distintas del castellano en el Registro Civil. Pueden citarse el auto (25-10-1993) y la sentencia (26-01-1993) del Tribunal Constitucional que han subrayado el carácter del castellano como lengua del Registro Civil, admitiendo igualmente la posibilidad, derivada de la cooficialidad lingüística, de expedir y obtener certificaciones bilingües de los asientos del registro. En esa misma línea han ido las resoluciones de la DGRN (10-01-1996 y 05-09-1998) y, por último, las tres órdenes (26-05-1988, 20-07-1989 y 21-01-1993) y la circular (01-03-1984) conformadoras de los modelos oficiales de dichas certificaciones bilingües.

La incidencia de la legislación lingüística más reciente (artículo 17 de la Ley 1/1998 de 7 de enero, de política lingüística de Catalunya, relativo a los registros públicos: *1. Son válidos los asientos registrales realizados en cualquiera de las lenguas oficiales*) nos lleva a pensar en la posibilidad de la utilización de las lenguas cooficiales diferentes del castellano como lengua de trabajo del Registro Civil. De todos modos, y con relación a dicha disposición, la DGRN ha recordado, en su resolución de fecha 28-10-1999, que dicho artículo debe ser interpretado en el sentido de que la cooficialidad lingüística supone la posibilidad de relacionarse con el Registro Civil en la lengua cooficial, y obtener del mismo las certificaciones en castellano y la lengua cooficial correspondiente, pero no que la lengua de organización interna sea otra que el castellano, por encima de lo que disponen la Ley y Reglamento del Registro Civil.

El empleo por parte del Registro Civil del euskera como lengua de trabajo es, hoy por hoy, una tarea por realizar.

### **Características del texto en euskera**

Lo anterior demuestra el interés por ofrecer en euskera y castellano, en las dos lenguas cooficiales en los territorios de lengua vasca del estado español, un texto que pueda ser instrumento de normalización de la lengua vasca en este campo.

El texto, como ya es habitual en esta colección, es un texto bilingüe, a doble columna, castellano-euskera, acompañado de los correspondientes índices analíticos castellano-euskera y euskera-castellano, que sirven de glosario entre una y otra lengua, a la vez que de guía para una búsqueda del término equivalente en la otra lengua y su ubicación sistemática en el texto legal y reglamentario.

De acuerdo con lo dicho hasta ahora, se imponía la necesidad de un texto que cumpliera una serie de requisitos mínimos, tanto lingüísticos como de contenido. Cabe explicitar algunos de ellos:

- a) Se ha pretendido un texto actualizado, de acuerdo con las normas y recomendaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. Esto ha llevado a la incorporación a este texto de los términos que la Academia ha ido definiendo en la segunda vuelta de su diccionario unificado (*auzotartasun/auzotasun, naziokotasun/naziotasun*).
- b) Se ha tenido en cuenta, a la hora de fijar la terminología, la incidencia en el campo semántico de la totalidad de los tipos de asientos y libros del Registro Civil, para lo cual se han utilizado, respectivamente las siguientes expresiones: *aipamenak/menciones, ezerezteak/cancelaciones, idatzoharrak/ anotaciones, inskripzioak/inscripciones, orri-bazterreko oharrak/notas marginales y Familia Liburua/Libro de Familia, Isilpeko Ezkontzen Liburua/Libro de Matrimonios Secretos, Langileria eta Bulego Liburua/Libro de Personal y Oficina, Liburu Egunkaria/Libro Diario*. Del mismo modo, no pueden quedar de lado los términos y usos que son propios del Registro, pero que pueden resultar extraños a quien no está habituado a ellos. Entre estos cabe destacar la expresión castellana *traslado* y la forma en la que se han vertido al euskera sus tres acepciones (cambio de ubicación geográfica de los libros —*lekualdaketa*—, transcripción del contenido de los libros —*kopia*—, comunicación de un acto registral —*jakinarazpena*—).
- c) Se han utilizado los precedentes ya publicados de textos civiles por la Universidad de Deusto, a los efectos de lograr una coherencia con el sistema de derecho civil hoy vigente en el estado español.
- d) Se han contrastado los términos utilizados con los de los textos establecidos para los formularios del Registro Civil por la Comisión para la Traducción de Documentos Judiciales en Euskera de la Consejería de Justicia del Gobierno Vasco. A sus soluciones se ha adaptado el texto en su mayoría (así ha sucedido, por ejemplo, con los términos en euskera *orri-bazterreko inskripzio/orri-bazterreko ohar/eginbideak gauzatu*); y, en los casos de discrepancia, ésta se ha debido a motivos suficientemente fundados, a juicio de los autores, tales como *prozesuko arauak/naziotasuna/Fiskaltza*.

## **Responsables de la edición**

La versión en euskera y la edición bilingüe de la Ley y el Reglamento del Registro Civil es otro fruto del Convenio de Colaboración entre la Consejería de Justicia del Gobierno Vasco y el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto. Este último, junto con el Seminario de Euskera Jurídico de la Facultad de Derecho de dicha universidad ha realizado la versión en euskera con una primera redacción por parte de doña Aiora Aristondo Azkonobieta, investigadora de dicho instituto, bajo la dirección de la profesora de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto, doña Esther Urrutia Idoyaga y la colaboración de don Andrés Urrutia y don Gotzon Lobera, profesores también de dicha facultad.

Esperemos que este texto sea otra herramienta útil y valiosa para quienes en nuestros pueblos y ciudades tienen encomendada la labor de llevar adelante el Registro Civil, y también para quienes acuden diariamente al Registro Civil con la pretensión de poder utilizar la lengua vasca como elemento natural de relación con la Administración de Justicia.

*Los autores*

